

ERRETERIAKO EUSKARA

Mikel Carcedo Mitxelena

Euskara, eskuara edota euskera. Hirurak ere, errenteriar euskaldun petoen ezpainetatik soma baitaitezke udal dermioan barrena. Eta gure herriko euskararen aniztasuna eta aberastasuna ezezik euskalkien arteko muga ere adierazten digute nabardura horietan: goi nafarrerak eta gipuzkerak biek topo egiten baitute Errenteriako lurretan.


Euskarak aurrera egin eta bizirik jarraituko bazuen burutu beharreko prozesua zuen, inondik ere, batzearena. Estandarizazio prozesu hori abiarazi zenerako ordaindu beharreko prezioa ere izango zela iragarria zegoen ordea. Eta hala xe, egun, nabardurak ezezik euskalkiak berak ari zaizkigu lausotzen abaila bizian. Euskalki-azpieuskalkiek ordea aberastasuna dakarkiot estandarrari. Ez dira elkarren etsai, elkarren osagarri baizik.

Ezingo dugu ukatu egundalako aurrerakada ezagutu ez duenik euskararen biziraupenerako borrorak baina, flakezian egoki oraindik-eta, kezka ugari badugu geurekin.

Pasaia, Lezo, Oiartzun, Altza, Astigarraga, Donostia, Hernani, Arano eta Goizuetarekin mugadun da Errenteria. Geografikoki Gipuzkoan kokatua egon arren nafar ukitua edo are, nafarrera, berezkoa izan zaio eta zaio gure udal dermioko zati jakintsu bati, muga administratiborik ez baitute ezagutzen hizkuntzek (nahiz eta hauek ere eragin). Neurri ttipixean bada ere, Iparraldearekiko gertutasunak ere ukituak eta hondarrak utzi dizkio bertako hizkera-moldeei. Herri-hizkeran zeuden eta dauden loturak urratuz doa ordea gure bizikera. Batetik, Nafarroarako joera baino handiagoa baitugu egunetik egunera Donostia aiekarakoa eta, bestetik, euskal komunikabideek euskara eredu estandarra bulkatzen baitute.

Hizkuntzaren alorrean hiztun-kantitateari soilik erreparatzea murrizta deritzogu. Laurogei urtetik goitiko hiztunek berebiziko inportantzia dute kalitateari eta aberastasunari gagozkiola, nahiz eta prestigio eskasekoa darabiltenaren ustea nahi baino zabalduxeago egon beren baitan.

Herriko gazte jendeak ezezik helduek ere, zenbait salbuespenez noski, desagertzeko zorian dauden makinatxo bat esapide eta adierazpide bagenuke ikasterik gure xaharrenen ezpainetatik. Iturritik ura bezalaxe baitarie hizketa arin, freskoa eta graziazkoa haien gogoari. Aiton-amona hauen ondareak etorkizunean geure artean jarraipenik izatea desio dugunoi zubi-lana egitea dagokigu hortaz.



Gure Oarsoaiekako eskualdeari erreparatuz gero oraindano soilik Oiartzungo hizkera dago jasoa eta azertua, iaztik, neurri batean bederen (Ainhua eta Idoia Fraile Ugalde ahizpa errenteriar erdioiartzuartuen ahaleginari esker, esan dezagun bidenabar). Pasaiaari (Antxo, San Pedro eta San Joan) dagokion ikerketa-lana aurtengo irailerako espero da plazaratzea (tarteran ibili da hemen ere errenteriarrik; Mikel Lersundi Ayestaran, hain zuzen ere). Lezokoa, agidanez, Pasaiakoa bukatu orduko hastekotan dira bi lezoar prestu (horietako bat Pasaiakoa burutua izango duen Joxe Luix Agirretxe Mitxelena). Gauzak horrela, lekuan lekuko euskara altxatzen ari zaizkigunean Euskalerrian barrena eta, urrutirago joan gabe, Oarsoaldean bertan gure herrikoa izan ezik jaso eta azertu bidean denean bertako hizkera, eskaera premiatsu bat egin beharrean gaude. Horretarako Joxe Luix Agirretxe Mitxelenaren hitzez baliatuko gara: “(...) Errenteriako berezko euskara edo euskalkia kultur ondare neurtezina dela, berau azertuz eta jasoz ekarpen izugarria egingo litzaioke euskalaritzari. Bestetik, oinarri bat jarriko litzaieke maila guzietan geroan egin litezkeen gaiaren inguruko sakontze-lanei (...)”

Beste zenbaiten hitzez ere baliatu nahi dugu. Esate baterako, “*Oiartzungo Hizkera*” gauzatu zutenenak: “(...) Lan honen ondorio nagusi gisa, aipa dezagun, hizkuntzaren muinean barneratzearen garrantziaz ohartu garela. Benetan, zenbaterainoko garrantzia duen, komunikazio tresna naturala, espontanea eta pentsamenduaren alor desberdinak erregistro desberdinen bidez isladatuko dituen izateak. Izan ere, aitonamonen konpainian horrenbeste arratsalde pasa ondoren, eta euskalkiak desagertzen ari diren une honetan, sekulan baino premiazkoago jotzen dugu euskararen normalizazio prozesuan, tokian tokiko euskarak indarberritzeko egin beharreko ahalegin berezia, euskaldun kantitateak bezainbateko garrantzia baitu euskararen kalitateak.

Zeregin honetan ikastolek, eskolek, AEK-k, Udalak eta nola ez, herriko komunikabideek konpromezu handia dutelakoan gaude.”

Azkenik, eta denen buruan, 1976ko Koldo Mitxelena Elissalten hitz batzuk paratuko ditugu bere heriotzaren hamargarren urtemugaren bueltan gauden honetan: “(...) Euskalkien azterketa ere ez da etzidamurako utzi daitekeen eginbidea. Zenbait lekutako hizkera galzorian dugulako, aurrenik, eta aspaldidaniko bereizkuntzak galtzen ari direlako, bestetik.

Batasun ahaleginak premiazko ditugu hizkuntzak iraungo baldin badu, baina, batera ahala, euskalkiak nahasten ari dira, galtzen ez badira ere. Nahasteak, aise ikusten da, beti izan dira gure artean, beti izan baitira, ugari edo bakan, eskualde bateko eta bestekoan harremanak. Ez, ordea, alderatzeko ere, oraingo neurrian”.

Lehendikan ere, esan, eskatu eta erregutu faltan ez gara. Altxako ahal dugu, baldinbetan, geuk ere geurea noiz baino noiz lehenago! ✎

